

Iberiar penintsulako makaldi-sahasti eta tamariz basoak

1.7.3

Chopera-sauceda y tarayal ibéricos

Makaldiek, haltzadiak eta sahastiek ibilguten ondoko zerrenda estua hartzen dute, uhaldiek aldizka urez betetzen dituzten eta agorraldian ere blai edo heze jarraitzen duten lurzoruetan, alegia. Haltzak (*Alnus glutinosa*) eta sahats ilunak (*Salix atrocinerea*) ugariak dira iparraldean eta mendebaldeko erdialdearen substratu silizeoetan. Sistema Iberikoko eta Levanteko ibaietan eta ibai betiko handietan, aldiz, makalak (*Populus alba*, *P. nigra*) eta zume zuria (*Salix alba*) dira nagusi. Horien azpian baso hostogalkorretako ohiko landareak eta izaera hidrofiloagoko beste batzuk hasten dira, hala nola, lianak eta iratzeak. Sistema Iberikoan, Pirinioetan, eta bereziki Penintsularen hegoaldean, galeriako baso horiek gehien azaltzen den elementuetako bat dira 1.300 metrora, eta formazio trinkoak eratzen dituzte ibaien behealdeko toki bareetan paisaia ikusgarria sortzen duten urbazterreko ertz-ertzera.

Sahasti puruek, ordea, baso txikiak eratzen dituzte alubioetan eta errekarriez sortutako uharteetan, aldizka uhaldi biziak aldaketak sortu arren. Sahatsak horrelako substratu ezegonkorretan ernamuntzeko, emariaren erasoari aurre egiteko sustrai sendo eta sakonak sortzeko eta hainbat metrotako uhaldiak jasateko gai dira.

Choperas, alisedas y saucedas, ocupan una estrecha franja ceñida a los cauces, a las riberas, sobre suelos periódicamente inundados por las avenidas y que se conservan empapados o húmedos incluso durante el estiaje. Alisos (Alnus glutinosa) y sauces negros (Salix atrocinerea) son frecuentes en el norte y en los sustratos silíceos de la mitad occidental. En los ríos iberolevantinicos y en los grandes ríos béticos los árboles dominantes son chopos (Populus alba, P. nigra) y sauces blancos (Salix alba). Bajo ellos crecen plantas comunes de los bosques caducifolios y otras de carácter más hidrófilo, como ciertas lianas y helechos. En el sistema Ibérico, en el Pirineo y sobre todo hacia el sur de la Península estos bosques en galería llegan a ser uno de los elementos más constantes hasta los 1.300 m. Constituyendo hasta el mismo borde del agua formaciones compactas que generan un paisaje espectacular en las zonas tranquilas de los tramos bajos de los ríos.

Las saucedas puras, en cambio, forman bosquetes de poca envergadura sobre los aluviones e islas de cantos rodados del cauce que sufren remociones periódicas durante las avenidas impetuosas. Los sauces son capaces de germinar en estos sustratos inestables, de producir raíces tenaces y profundas que aseguren su fijación frente a los embates de la corriente, y soportar inundaciones de hasta varios metros en las crecidas.

311	<i>Populus alba</i>	Zurzuria	Álamo blanco
424	<i>Salix atrocinerea</i>	Sahats iluna	Sarga negra
28	<i>Alnus glutinosa</i>	Haltza	Aliso
480	<i>Tamarix gallica</i>	Milazka europarra	Tamarisco
478	<i>Tamarix africana</i>	Milazka	Tamariz negro
483	<i>Tamus communis</i>	Apomahatsa	Nuez negra
254	<i>Lonicera periclymenum sub. hispanica</i>	Basoetako atxaparra	Madreselva española
514	<i>Vitis vinifera subsp. sylvestris</i>	Mahatsondoa	Vid silvestre
211	<i>Hedera helix</i>	Huntza	Hiedra
60	<i>Bryonia dioica</i>	Astamahats ale-gorria	Nueza blanca
405	<i>Rubia tinctorum</i>	Otxar gorria	Rubia roja